

Tubacex-eko Enpresa Batzordea-Komunikatua

Tubacexeko enpresa batzordetik zuzendaritzaren azken adierazpenen harira hurrengo hau argi utzi nahi dugu:

Enplegu erregulazio expeditenteko bileretan argi gelditu zen hau aurkeztearen arrazoiak koyunturalak zirela, pandeamiak eragindako ziurganbetazun egoeraren fruitu.

Adibidez, lehenengo bileretan, petroleoaren prezioaren jeitsiera arrazoi estruktural bezala aurkestu zuten, baina negoziaketa aurera joan ahala, prezioa igo egin zenean ez genuen berriz entzun arrazoi hori.

Beste alde batetik egunero esaten digute gure produktuen eskaerak hiru-lau hilabetekoak direla, baina bapatean, hori aldatzen da eta badakite 2024ra arte galerak izango ditugula eta beraz egiturazko arrazoi bezala aurkezten digute. Eta gainera, enpresa batzordetik, enplegu bermeari eta Aiarako lantegien etorkizunari buruz galdetzen zaienean, hor bai, dena dago airean eta ezin dute ezer zihurtatu.

Argitu nahi dugu ere, bileretan egon garen bitartean, sindikatuen jarrera ezin hobea izan dela, beti negoziatzeko prest egon gara eta proposamen bat baino gehiago aurkeztu genuen akordio baten bila. Baina, beste aldetik, erantzuna beti ezezkoa zen argi utziz eurentzat negoziatzea eurek proposatzen zutena onartzea zela.

Mahai gainean beti kanporatzeak egon dira. Orain esaten dute, aukera ezberdinak zeudela baina, bileretako aktetan ikusi dezakegu hori gezurra dela. Hain zuzen ere, enpresa batzordeak soldata murrizketak egin ez gero kaleratzeak bertan behera utziko ziren galdetzean, zuzendaritzaren erantzuna ezezko borobila izan zen.

Enpresa batzordetik beti defendatu izan ditugu aldi baterako neurriak eta negoziaketa honetan ulertzen dugu, hauek izango lirakekeela konponbidea. Gogoratu behar dugu, jada, hiru aldi baterako enplegu expediente daramatzagula soinean, baina egoera

honetan, uste dugu aukerarik onena izango zela, eta ez Enplegu Erregulazio expedientea.

Kaleratzeak gauzatu dira baina gure aldetik ziur gaude egoerari buelta eman ahal diogula. Ez du balio gu egoera honen errudun bakarra garela esatea, eurek sortu duten arazo honi eurek eman behar diote irtenbidea. Greba iraunkor hau zuzendaritzaren berekoikeriaren fruitu da, pandemiaren ondorioak langileengan utzi nahi dituzte. Hau ez da elkartasuna, aldiz guk erakusten duguna gure lanpostuen eta gure enpresaren etorkizunaren defentzan bai.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, aurrera pausu bat eman dezala. Batzuetan enpresako bozeramaileak bihurtzen dira eta beste batzuetan gure alboan daudela esaten dute. Tapiari entzuten diogu krisia aspalditik datorrela, baina gonbidatzen dugu Esmorisek pandemia aurretik egindako adierazpenak ikustera, non esaten zuen gure etorkizuna ziurtatuta zegoela, egindako produktuen dibertsifikazioa ezin hobea zela eta. Gogoratzen diogu, 2018an zinatu zela hitzarmen kolektibo bat, soldata igoerekin, enplegu sorrerekin, inbertsioekin.... Eta Hitzarmen hau bi aldetatik zinatzen da, beraz ezin dute esan, hau guztia aurreikusten zela.

Eusko Jaurlaritza Tubacexeko laugarren akzioduna da eta era berean Euskal Herriko enpleguaren mantentzearen arduraduna. Horregatik, esan dezakegu, bere esku dagoela egoera honi buelta ematea eta lagileriaren eta aiaraldearen alde zerbait egitea behingoz.

Mezu hau Arabako Politikariei heldu behar zaie, aiaraldeko alkateei baita Arabako Diputatu nagusiari. Arazo hau kezkatzeko modukoa da, arabako enpresa baten deslokalizazio bat baita.

Ez da lehengo aldia, eta norbaitek saieztu behar du, beraz aipatu ditugun instituzio guztiek aurrera pauso bat eman beharko dute. Ezin dute beste aldera begiratu.

Argitu nahi diegu komunikabide batzuetako tertulianoei eta patronalaren aldeko egunkariei, Tubacexeko langileen lan baldintzak duinak direla, ez hobeak ez okerragoak, duinak. Langileek euren ahaleginei esker irabazi dituzte euren soldatak, alde bietatik

sinatu ditugun hitzarmen kolektiboen arabera. Eta enpresa batzorde hau, edozein lekutara joateko prest dago, hori argitzera eta esaten diren gezur guztiak ezeztatzen.

Azkenik, Ertzantzaren indarkeria salatu nahi dugu. Legebiltzarrean, zein Laudiko edo Amurrioko lantegietako sarreretan ikusi ditugun ekintza bortitzak guztiz soberan daude. Baita ere, enpresa batzordeko kideei egin dizkiguten miaketak bilera batzuetan. Gaizkile bezala hartu gaituzte nahiz eta guk gure lanpostuak defendatzea baino ez genuen nahi.

Hemen denok elkarrekin gaude, eta denok batera saiatuko gara gure lanpostuak eta Tubacexeko etorkizuna aurrera eramanten. Argi daukagu langileok garela, gure enpresaren alde egiten dugunok, eta ez euren poltsikoak loditzea baino bilatzen ez duten zuzendariak, aiaraldeko familiak alde batera utzita.

Gure esker ona langile guztioi orain arte erakutzitako elkartasunagatik. Hemen ez daude kaleratuak edo ez kaleratuak, guztiok batera lortuko dugu Tubacexen ez dagoelako inor soberan.

Tubacex-eko Enpresa Batzordea